

adn

Arabako Denden Nortasuna
Comercio de Álava con Identidad

Landa-merkataritza | Comercio rural

Arabako Foru
Aldundiaren
Laguntza
Landa-
Merkataritzari

Alerta Goiztiarreko Programa

Doako programa honek aholkularitza tekniko espezializatua eskaintzen du negozioaren kudeaketaren alderdi kritikoak eta hobetu daitezkeen alderdiak aztertzeko, eta, ondoren, ekintza plan bat prestatzeko, epe labur eta ertainean lehiakortasuna hobetzeko ekintza zehatzak jasoko dituen.

Saltokiak ekintza plan hori abian jarri eta garatuko du, bere salmentak indartzeko eta errentagarritasuna bermatzeko, eta une oro aholkulari espezializatu baten laguntza izango du, telefonoz, online edo aurrez aurre.

Azken urratsa ekintza planaren ezarpenaren eta emaitzen ebaluazioa izango da.

Errelebo Programa Zerbitzu Sektorean

Zerbitzuen sektoreko Arabako enpresen eskualdaketa errazteko zerbitzua da. Enpresa horiek kalean bertan daude, errentagarriak dira eta, jabeak erretiroa hartuko duelako edo beste arrazoiren batengatik, laster jarduera bertan behera utziko dute.

Programa honek laguntza pertsonalizatua, doakoa eta konfidentziala eskaintzen die negozioa eskualdatu nahi duten pertsoneri, bai eta jarduerari jarraipena emateko inbertitu eta enpresa bat erosi nahi duten ekintzaileei ere.

Inbertsiorako laguntzak

Arabako merkataritza sektoreko autonomo eta enpresentzako laguntza lerroa, merkataritzaren lehiakortasuna hobetuko duten inbertsioak egiteko. Laguntzek inbertsioaren % 50 estaltzen dute.



Diruz lagundutako inbertsio proiektuak bi motatakoak dira: hobekuntza teknologikoarekin loturiko inbertsioak edo negozioak digitalizatzekoak, bai eta online salmenta sustatzeko inbertsioak ere; eta desgaitasuna edo mugikortasun urria duten pertsonentzako lokalaren ekipamendua eta irisgarritasuna hobetzeko inbertsioak.



www.araba.eus

Enplegu, Merkataritza,
Turismo eta Foru
Administrazioaren Saila

945 18 17 26

empleo.comercio.turismo@araba.eus



Jarduerarako laguntzak

Tokiko saltokientzako laguntza lerroa, beren jarduera sustatzeko. Programa horrek honako hauetarako laguntzak ematen ditu: merkataritza dinamizatzeko ekitaldiak edo ekintzak antolatzeko; digitalizazioarako eta teknologia berriak erabiltzeko; merkataritzari atxikitako zerbitzuak kontratatzeko; eta establezimenduak eta/edo produktuak ezagutarazteko eta kontsumitzaileak erakartzeko publizitate ekintzak egiteko.

adn

Arabako Denden Nortasuna
Comercio de Álava con Identidad

Landa-merkataritza | Comercio rural

Apoyo de la
Diputación Foral
de Álava al
Comercio de la
Zona Rural

Programa Alerta Temprana



Este programa gratuito ofrece asesoramiento técnico especializado para analizar los puntos críticos y aspectos mejorables en la gestión del negocio y, posteriormente, elaborar un plan de acción con actuaciones concretas a corto y medio plazo para mejorar su competitividad.

El comercio pone en marcha y desarrolla dicho plan de acción dirigido a reforzar sus ventas y garantizar su rentabilidad con el apoyo y acompañamiento en todo momento del asesor/a especializado/a de forma telefónica, online o presencial.

La evaluación de la implantación del plan de acción y sus resultados es el último paso.

Programa Relevo Sector Servicios



Es un servicio dirigido a facilitar la transmisión de las empresas de Álava del sector servicios, con establecimiento a pie de calle, que son rentables y que por jubilación del propietario/a u otro motivo va a cesar próximamente su actividad.

Este programa ofrece ayuda de forma personalizada, gratuita y confidencial a aquellas personas que quieran traspasar su negocio, así como a las personas emprendedoras que deseen invertir y adquirir una empresa para dar continuidad a su actividad.

Ayudas a la inversión



Línea de ayudas a autónomos y empresas del sector comercial además para realizar inversiones que mejoren la competitividad del comercio. Las ayudas cubren el 50% de la inversión.

Los proyectos de inversión subvencionados son de dos tipos: inversiones relacionadas con la mejora tecnológica para la digitalización de los negocios, así como para el fomento de la venta online; e inversiones para mejorar el equipamiento y accesibilidad del local para personas con discapacidad y/o movilidad reducida.



www.araba.eus

Departamento de Empleo,
Comercio, Turismo y de
Administración Foral

945 18 17 26
empleo.comercio.turismo@araba.eus



Ayudas a la actividad

Línea de ayudas al comercio local para la promoción de su actividad. Este programa concede ayudas para la organización de eventos o acciones de dinamización comercial; la digitalización y el uso de nuevas tecnologías; la contratación de servicios anexas al comercio; y la realización de acciones de publicidad para dar a conocer establecimiento y/o productos y atraer personas consumidoras.